

Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Enpresak gure bezero garrantzitzuenetarikoa dira, beraz haiekin kontaktua mantentzea ezinbestekoa izango da.

Guk gure helburua eta funtzionamendua azalduko diegu, haiek zer onura lortuko dituzten jakin dezaten. Horrez gain, enpresa bakoitza aztertuko dugu, bakoitzarekin baldintza ezberdinak izango ditugulako.

Haien enpresara bideratutako ezinduekin arazoak baldin badaude guk konpondu egin behar ditugu, enpresa honekin egindako lana hobetzeko eta arazorik ez sortzeko.

Enpresek gure zerbitzuetaz edozer behar badute guk eskainiko diegu edo hobetu ahal den sektore bat ikusten badute kontuan hartuko dugu haien iritzia.

● LAN INGURUNE EGOKITUA

- **Irigarritasuna:**Sarrera automatikoko ateak, arrapala edo igogailu egokiak.
- **Ergonomia (tresnak, altzariak eta makinak nola diseinatzeko, erabiltzen dituzten pertsonen hobeto egokitzeko):** Lanpostuak gorputz-mugikortasun desberdinetarako egokitzea (adib., altuera erregulatzeko mahaiak)
- **Seinaletika bisuala eta akustikoa:** Langile itsu edo gorrentzako, adibidez, braille hizkian edo kontraste handiko koloreetan seinaleak, eta ohar akustikoak.

● LANEKO BALIABIDE TEKNOLOGIKOAK

- **Tresna teknologiko espezifikoak:** Pantaila-irakurleak (Screen Readers) itsuentzat. Teklatu alternatiboak edo botoi handiagoekin saguak. Ahots bidezko kontrol-sistemak.
- Lan-fluxuak automatizatzeko softwareak, prozesuak errazteko.

● FORMAKUNTZA ETA TREBAKUNTZA

- **Lanbide-prestakuntza:** Ezinduen beharrak kontuan hartuz sortutako prestakuntza-programak (adib., diseinu grafikoa, programazioa, administrazioa, etab.).
- **Gizarte-trebetasunen tailerrak:** Talde-lanean eta komunikazioan parte hartzeko laguntza.

I

Ezinduak funtsezkoa dira gure enpresak ematen duen zerbitzua aurrera eramateko.

Haiekin harreman oso ona eduki behar dugu, guran konfiantza izatea lortu nahi dugulako, haiek gustuko duten enpresa batera bideratzeko helburua dugulako.

Hasieran haiekin etengabeko kontaktuan egongo gara haien lan-baldintzak ezagutzeko eta gustora badauden jakiteko. Gero, enpresa batean lan aurkitzen dutenean, gure Gmail-a edo gure telefono zenbakia emango diegu, arazo bat dutenean gurekin kontaktuan jartzeko.

Ondoren, arazorik ez badute eta enpresan ondo moldatzen badira, 6 hilabeteko inkesta bat bidaliko diegu kontaktua mantentzeko. Inkestan, gure enpresa baloratzea eskatuko diegu, enpresak dituen ahuleziak konpontzeko.

- **Arazoak konpontzea:** Gure enpresako arazoak konpontzeko, denok bilduko gara bakoitzak bere ikuspuntua adierazteko, erabaki komun batera heltzeko. Gure antolakuntzak ezinduen eta enpresen arteko harremanetan sortzen diren arazoak konpontzen ditu. Lanpostuak egokitzen ditugu eta ingurune irisgarriak sortzen laguntzen dugu, enpresak kontzientziazatuz eta kontratazio inklusiboa sustatuz. Era berean, komunikazio arazoak bitartekaritzaren bidez konpontzen ditugu, eta enpresei lan-ingurune inklusiboak sortzeko orientazioa ematen diegu. Gure helburua ezinduen integrazioa eta arrakasta bermatzea da, baita enpresei balio handiko talentua eskuratzen laguntzea ere.
- **Sareak + teknologia:** Gure enpresa ezaguna izateko eta bezero gehiago edukitzeko funtsezkoa da publizitatea, webgune bat sortzea eta marketing-a egitea. Horretarako, webgune bat sortzeko informatikari bat kontratatuko dugu. Bestalde, Unax eta Dylan Bizkaiko pertsona famatuekin kontaktuan jarriko gara gure enpresa ezagutarazteko. Adibidez, Athletic-eko jokalariei batekin, edo ezintasun batekin zerikusia duen famatu batekin (Sara Andres edo Rakel Mateo). Hauek interesatuta badaude, Instagramen gure enpresaren post bat igotzea eskatuko diegu, eta arazorik ez badago, Tik Tok-en bideo bat argitaratuko dute gure enpresa aurkezten. Baina, pertsona famatuak interesatuta ez badaude, guk gure enpresaren argazkiak sare sozialetan argitaratuko ditugu, esaterako, Instagram, Tik Tok eta Twitter piblizitatea igotzeko erabiliko ditugun sare sozialak izango dira.
- **Enpresarekin eta ezinduekin kontaktuan egotea:** Gure helburu nagusia da ezinduen eta enpresen arteko zubi lana egitea da. Horretarako, Naia eta Lur ezinduekin prestakuntza eta lan orientazioaren bidez ezinduen gaitasunak identifikatuko dute eta lan merkatuan integratzen lagunduko diegu. Bestalde, enpresekin lanpostuak egokitzeko aholkularitza eskaintzen dugu, kontratazio inklusiboa sustatuz eta lan-ingurune irisgarriak sortzen lagunduz. Bilerak, lankidetzak-akordioak eta lan-eskaintzak partekatzeko plataforma espezializatuak erabiltzen ditugu, bereziki, Gmaila.
- **Bestelakoak:** Gure enpresak garrantzi handia ematen die ezinduekin eta enpresekin kontaktuan jartzeari eta ez dugu alokairutaz eta enpresak egindako diru-trantsizioz arduratzeko denborarik. Beraz, bulegoko alokairuak, diru-kontuak eta bestelako kontuak kudeatzeko kontulari bat kontratatuko dugu.